

ERABAKIA, 2025eko OTSAILAREN 24koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, ERASMUS+ NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAN 2025eko ABUZTUTIK ABENDURA BITARTEKO PROGRAMA TRINKO KONBINATUEN DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKOA

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzaren deialdi honen xedea da Erasmus+ programaren barruko 1. ekintza gakoan jasotako Programa Intentsibo Konbinatuetan (BIP, Blended Intensive Programmes, ingelesez) dirulaguntzak eskatzeko, kudeatzeko eta esleitzeko prozedura arautzea, Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bidez ezarritako jarraibideei jarraituz.

Kontuan izanik kreditua badagoela, KA131 2024 et KA131 2025 proiektuei loturiko dirulaguntza kontratuko Europako funtsetatik, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe

ERABAKI DUT

Lehena: Onartzea eta argitaratzea Erasmus+ Nazioarteko Mugikortasun Programako 2025eko abuztutik abendura bitarteko BIPen deialdiaren oinarriak.

Bigarrena: Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Hala ere, horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeari, hilabeteko epean, UPV/EHUren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, UPV/EHUren webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da laguntza ekonomikoak ematea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutako ikasleei Erasmus+ programaren barruan BIPetan parte hartzeko.

BIPak mugikortasun labur mota espezifiko bat dira. Zehatzago esanda, ikasteko eta irakasteko metodologia berritzaileak darabiltzaten programa laburrak dira, Europako hiru herrialdeko gutxienez hiru unibertsitatek elkarrekin antolatutakoak. BIPen, ikasleek 5 eta 30 egun bitarteko mugikortasun fisikoa egiten dute atzerrian, derrigorrezko osagai birtual batekin konbinatuta. Mugikortasun fisikoa unibertsitate koordinatzaileak aukeratutako lekuan burutzen da. Osagai birtualaren eta mugikortasun fisikoaren arteko konbinazioa 3 ECTS izango da gutxienez.

BIPa egiten duten ikasleek Hezkuntza Nazioartekotzako Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) mugikortasun laburretarako zehaztuak dituen Erasmus+ programako laguntzak jaso ahal izango dituzte.

2025eko abuztutik abendura bitartean egingo diren BIPen eskaintzei eta parte hartzeko eskabideak aurkezteko datei buruzko informazioa **deialdi honen 1. ERANSKINEAN** jasota dago.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak

Norentzat: BIP bakoitzeko deskribapenean zehazten diren titulazio edo ikastegietako ikasleentzat (1. eranskina).

2.1.1. **Eskaera egiten duenean** ikaslea UPV/EHUn matrikulatuta egon beharko da. Mugikortasuna egiten duen ikasturtean ere UPV/EHUn matrikulatuta egon beharko da.

2.1.2. Ikasleak, eskabidearekin batera, berak aukeratutako BIPa **emateko hizkuntza nahikoa badakiela egiaztatu** beharko du, BIP bakoitzaren eranskinean jasotakoaren arabera. Gutxienez, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko **B2** maila egiaztatzea eskatuko da.

2.1.3. Ikasturte berean ezin izango da bigarren BIP batean parte hartu, beste BIP batean parte hartu bada.

2.1.4. Ikasleak gutxienez **6,5eko batez besteko nota** egiaztatu beharko du bere espediente akademikoan. Graduako ikasleentzat, aurreko ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan, eta masterreko eta doktoregoko ikasleentzat, berriz, master edo doktorego horretara sartzeko graduan lortutako batez besteko nota.

2.1.5. Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du, edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasunak dirauen artean bizileku baimena duena), kasuan kasuko estatuko legediaren arabera halakotzat aitortua.

UPV/EHUko nazioarteko mugikortasunari buruzko araudiaren arabera, kanpotik datozen ikasleek ezingo dute deialdi honetan parte hartu, horrelako ikasletzat hartuta aipatutako araudiaren 3.9 eta 8.4 artikuluetan definitutakoak.

2.1.4. Ezin izango dute parte hartu honako ikasle hauek:

- i. BIParen iraunaldian lehenengo mailan daudenek;
- ii. Ikasturte berean beste mugikortasun bat egiten dutenek;
- iii. Erasmus Mundus Masterra egiten ari direnek;
- iv. aurreko deialdietan mugikortasun programetako arauak ez betetzeagatik zigorra izan dutenek.

2.2. Aurreikusitako jarduera

2.2.1. BIPek **5-30 eguneko egonaldi fisiko bat** eta **osagai birtual bat** konbinatzen dituzte atzerriko unibertsitate batean. Osagai birtualaren eta mugikortasun fisikoaren konbinazioak 3 ECTS izango ditu gutxienez.

2.2.2. Erasmus+ programak 12 hilabeteko muga ezartzen du Erasmus+ mugikortasun egonaldirako, ikasketa-ziklo bakoitzeko. BIPeko egonaldi fisikoko egunak mugikortasun gisa zenbatuko dira, muga hori errespetatzeko.

2.3. Iraupena, egonaldia eta helmugak

BIParen iraupen osoa eta mugikortasun fisikoa BIP bakoitzaren deskribapenean adierazitako datetan eta helmugan egingo dira (1. eranskina).

Mugikortasun fisikoak bost (5) egunetik hogeita hamar (30) egunera bitarteko iraupena izango du.

3. Aurreikusitako finantzaketa

BIP bat egiteko plaza lortzeak berekin dakar SEPIEk ezarritako dirulaguntza eskuratzea, mugikortasun fisikoko aldirako.

	Laguntza arrunta	Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza
14. egunera arte	79€/eguneko	100€ gehiago mugikortasun osorako
15. egunetik 30 egunera arte	56€/eguneko	150€ gehiago mugikortasun osorako (ezin zaio aurrekoari gehitu)

Aukera gutxien dituzten ikasleen kolektiboa honako egoera hauetakoren batean dauden ikasleek osatzen dute:

- a) Estatuko Administrazio Orokorraren izaera orokorreko **ikasketa-beka baten onuradun** izatea, unibertsitate-ikasketak egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea mugikortasuna egingo den ikasturtearen aurre-aurreko ikasturtean edo oraingo ikasturtean.

- b) **Errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea izatea, edo Espainian nazioarteko babeserako eskaera aurkeztu izana.**
- c) **Kategoria bereziko familia ugaria**
- d) **Terrorismoaren biktimak eta senideak**
- e) **Legez % 33ko edo gehiagoko **desgaitasuna** aitortuta eta kalifikatuta izatea.**
- f) **Genero-indarkeriaren biktimak**
- g) **Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak**
- h) **Hiperaktibitadedun arreta faltagatiko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGN-H).**

"Aukera gutxien" kategorietako batekoa izateagatik dirulaguntza gehigarria jasotzeko eskubidea ematen duen baldintza zuzentzeko azken egunera arte egiaztatu ahal izango da. Nazioarteko Harremanen Bulegoak, eskabide-orrian adierazitako eskatzaileen berariazko baimenarekin, ofizioz egiaztatuko du egoera horietakoren batean dagoen. Horretarako, unibertsitateak egoera horien berri izan beharko du. Honela:

- a)- f) egoeretarako, UPV/EHUn matrikula egiteko unean duten egoeraren berri eman behar dute eskatzaileek.
- g)-h) egoeretarako, eskatzaileek UPV/EHUko Desgaitasun Zerbitzuarekin erregistratuta egon behar dute (discap@ehu.eus).

Nolanahi ere, egiaztapena arintzeko edo Nazioarteko Harremanen Bulegoak egiaztapena aipatutako zerbitzuekin batera egiteko baimenik eman nahi ez badu, eskatzaileek dagokien egiaztapena aurkez dezakete eskabidearekin batera.

Programan parte hartzen dutenek **bidaiia-laguntza** bat izango dute helmugaren distantziaren eta bidaiia-motaren arabera, jarraian zehazten den bezala:

DISTANTZIA	BIDAIA EKOLOGIKOA	EKOLOGIKOA EZ DEN BIDAIA
10 eta 99 km artean:	56 € partaide bakoitzeko	28 € partaide bakoitzeko
100 eta 499 km artean:	285 € partaide bakoitzeko	211 € partaide bakoitzeko
500 eta 1999 km artean:	417 € partaide bakoitzeko	309 € partaide bakoitzeko
2000 eta 2999 km artean:	535 € partaide bakoitzeko	395 € partaide bakoitzeko
3000 eta 3999 km artean:	785 € partaide bakoitzeko	580 € partaide bakoitzeko
4000 eta 7999 km artean:	1188 € partaide bakoitzeko	1188 € partaide bakoitzeko
8000 km o más:	1735 € partaide bakoitzeko	1735 € partaide bakoitzeko

Bidaien distantziak kalkulatzeko, Europako Batzordeak proposatutako distantzia-kalkulagailua erabili behar da (http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/tools/distance_en.htm). Ibilbidearen distantzia noranzko bakarrean adierazi behar da, joan-etorria barne hartuko duen laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Posible da mugikortasunaren hasiera dataren aurretiko bidaiia-egun bat finantzatzea eta mugikortasunaren amaiera dataren ondorengo bidaiia-egun bat finantzatzea bidaiia arruntean.

Bidaia ekologikoaren baldintzak betetzen dituen bidaia bat eginez gero, hasierako dataren aurrekiko 3 bidaia-egun finantza daitezke gehienez, eta amaiera dataren **ondorengo 3 bidaia-egun** gehienez.

Joan-etorriko ibilbidearen zati nagusia emisio txikiko garraiobideekin egiten den **bidaia ekologikoa da**. Garraio ekologikotzat hartzen dira autobusa, trena edo partekatutako autoa. Laguntza hori eskatzen duten ikasleek beti gorde behar dituzte joan-etorriak justifikatzen dituzten agiriak (garraio-txartelak), egiaztatu ahal izateko.

Erasmus+ programa trinko konbinatuertarako laguntza ekonomiko oro SEPIEk onartu eta finantzatutako proiektuetan erabilgarri dagoen aurrekontuari lotuta dago. Aurrekontu-mugak egonez gero, plazak "beka zero" gisa eskain daitezke (SEPIEren dirulaguntzarik gabe).

4. Eskaera egiteko modua

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaera bakoitza eredu normalizatuan bete beharko da (2. eranskina). Gehienez bost BIP eska daitezke, lehentasun-hurrenkera bat adierazita.

Eskatzaile bakoitzak eskabide bat aurkez dezake gehienez (2. eranskina), eskabide-aldi bakoitzeko (ikus 1. eranskina). Eskaera-aldi berean eskabide bat baino gehiago aurkezten badira, azkena bakarrik hartuko da kontuan, eta erregistro-zenbakia erabiliko da identifikazio-irizpide gisa.

Ezarritako epean zuzentzen ez duen eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da.

Nahitaezko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskaeraren inprimakia, eskatzaileak eta bere mugikortasun koordinatzaileak behar bezala beteta eta sinatuta (2. eranskina)
2. Indarrean dagoen NANaren edo AIZaren fotokopia. Europako Batasuneko beste estatu bateko herritarrek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan dagoen estatu batekoek pasaporte edo beren herrian parekoa den identifikazio dokumentua aurkeztu beharko dute, titularraren nazionalitatea agertzen duena. Gainerako herrialdeetako herritarrek atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZa) aurkeztu beharko dute.
3. Interesdunak dirulaguntza jaso nahi duen libreta edo kontu korrontearen xehetasunen kopia (**IBANa BARNE**). Titularraren izena kopian agertu behar da, eta kontua **Espainiako banku** batena izan behar da. **Eskatzailea** libretaren edo kontu korrontearen jabea izan beharko da nahitaez.
4. Hizkuntza-maila egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialen kopiak.
5. UPV/EHUko Buddy programan parte hartu izanaren ziurtagiriaren kopia, hala badagokio.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak egiteko epeak 1. Eranskinen BIP bakoitzaren fitxan agertzen dira. 1. Eranskinari BIP berrien fitxak gehitu dakizkioke, bakoitzaren eskaera datekin, Ebazpen hau argitaratu ondoren.

Aurkeztu beharreko eskabideei eta dokumentazioari dagokienez, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurkeztu beharko dira:

- Ahal dela, **UPV/EHUren erregistro elektronikoen bidez**. Helbide honetan dago: <https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index>, honako hau adierazi behar da **"ESKAERA" atalean: Eskaera Nazioarteko Harremanen Bulegora-BIP deialdia bidali (U02000247)**. Horretarako, identifikazio elektronikoko sistema hauetakoren bat erabili beharko da: a) Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala, b) UPV/EHUren Unibertsitate Txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa edo d) FNMT-CERES Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria.
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Correoseko bulegoetan (gutun zihurtatu lehenengo orria posta bulegotik sinatuta), eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

Eskaera posta bulegoren bidez aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Erasmus+ BIP deialdia
Bizkaiko Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Biblioteka eraikina 2 - Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

4.3. Eskaerak zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, **hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko**, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen **4.2 oinarrian ezarritako bitartekoen bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa**.

5. Hautapen prozedura

5.1. Hautapen baldintzak

Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioartekotze Zuzendaria, Nazioarteko Harremanetarako Zerbitzuko burua eta batzordearen idazkari lanak egingo dituen teknikari bat (hitza izango du, baina botorik ez).

- BIP bakoitzean parte hartzen duten ikastetxeen arteko oreka bilatuz esleituko dira plazak.
- Nazioarteko mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleek izango dute lehentasuna.

Bi lehentasun horiek kontuan hartuta, hautaketa irizpidea **merezimendu akademikoan** oinarrituko da, eta, horretarako, kontuan hartuko da eskatzaile bakoitzaren batez besteko nota bere ikastegiko gainerako parte hartzaileen notarekin alderatuta.

Berdinketa gertatuz gero, balorazio irizpideak erabiliko dira:

1. Lehentasuna izango dute mugikortasuna eskatzen den ikasketetan kreditu gehiago gainditzen dituzten eskatzaileek.
2. Berdinketak jarraitzen badu, aukera gutxiago dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna.
3. Berdinketak jarraitzen badu, [Buddy programan](#) parte hartu duten eskatzaileek izango dute lehentasuna.
4. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da eskaeraren aurreko ikasturtean batez besteko nota handiago izan duenarentzat.

Norbaitek eskaera egingo balu deialdi honetan eskainitako BIP batean baino gehiagotan parte hartzeko, gehienez plaza bakarra esleituko zaio eta Batzordeak esleituko du, eskatutako BIP guztietako plazen eskuragarritasunaren eta banaketaren arabera.

5.2. Erabakiak

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, Nazioarteko Harremanen web orrian argitaratzeko aginduko du onartutako mugikortasunen zerrenda, atzera botatakoena eta erreserban gelditu direnena.

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/ehuko-ikasleak/mugikortasun-deialdiak>

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak emateko edo ukatzeko erabakiaren aurka, dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legediaren arabera.

Erasmus+ programak eskatzen du BIPEk gutxieneko parte-hartzaile kopurua izan dezatela. Honenbestez, parte-hartzaile kopurua nahikoa izango ez balitz, salbuespen gisa, eta behin-betiko ebazpena eman ondoren, Nazioarteko Harremanen Bulegoak parte-hartzaileak proposatu ahal izango ditu.

5.3. Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Behin plaza esleituta, 5 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna **onartzeko edo hari uko egiteko** formularioa aurkeztuz (3. eranskina), **4.2. oinarrian ezarritako bitartekoen bidez**.

Plaza lortu ez duten pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean, eta uko egiteren bat gertatuko balitz, email bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrenda horretako hurrenkera.

6. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonen parte-hartzeko konpromiso hauek hartuko dituzte:

6.1. Egonaldiaren aurretik

Egonaldia hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, **5. eranskinean** jasotako urratsak bete beharko dituzte:

1. Hiru alderdiek sinatutako akordio akademikoa (4. Eranskina)
2. Bidaia aseguruak kontratatu izanaren ziurtagiria, estalduren deskribapenarekin, eta ordainketarenarekin.
3. Joan-etorriko bidaia-txartelak, bidaia ekologikoa zein arrunta izan. Dokumentu horiek beharrezkoak dira bidaia-egunen finantzaketa justifikatzeko.
4. OLS hizkuntza probaren egiaztagiria
5. Irakaskuntza helburuak dituen Mugikortasuna Diruz laguntzeko Hitzarmena

Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruak izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatiko (COVID-19a barne) edo istripuagatiko asistentzia medikoa eta farmazeutikoa, aberriratzea eta osasun lekualdaketa.

Bidaia aseguruak kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus+ programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk [IBILI-EHU](#) aseguruak eskaintzen du.

Ez da diruz lagunduko asegurririk gabe, OLS hizkuntza ziurtagiririk gabe eta hitzarmen akademikorik gabe eginiko mugikortasunik, ezta irten aurretik sinatutako Dirulaguntza Hitzarmenik ez duen mugikortasunik ere.

1 – 3 dokumentuak entregatuta, Nazioarteko Harremanen Bulegoak Dirulaguntza Hitzarmena (5) emango die parte-hartzaileei, eta hitzarmena osatzen lagunduko die.

6.2. Egonaldiaren ondoren

Kitapena egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira egonaldia amaitu eta hilabeteko epean:

1. Egonaldiaren amaiera ziurtagiria, UPV/EHUren formatuan edo informazio bera jasoko duen harrera erakundearen beste formatu batean. Benetako jarduera egunak adieraziko dira. Ziurtagiria originala izango da eta ez du izango ez zirriborrorik ez zuzenketarik, eta harrera erakundearen dagokion unitatearen zuzendaritzaren sinadura eta zigilua izango ditu.
2. Erasmus+ ikaslearen amaierako txostena (Inkesta bat). Online egingo da, txostena egiteko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Txosten hori egin ezean, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Bi (2) zatitan ordainduko da:

1. Lehen ordainketan, laguntzaren % 70 jasoko da, eta
2. Bigarrenean, jarduera burutu ondoren kitapenari dagokion zatia.

Bi ordainketen izapideak hasteko, ezinbestekoa izango da dokumentazioa 5. eranskinean jasotako kontaktuei bidaltzea.

8. Uko egitea

Adjudikatu den plaza bati uko egitea formalizatu egin beharko da 4.2 oinarrian ezarritako bitartekoen bidez (3. Eranskina).

Plazari uko egin edo programan parte hartu nahi ez duten ikasle esleipendunek oinarri hauen 5.3 puntuan ezarritako epeetan egin beharko dute. Baldintza hori betetzen ez duen ikasleak ezin izango du hurrengo ikasturtean nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu. Gerora gertatutako gertaeren ondorioz epe horiei gerora uko egiten bazaie eta esleitutako destinoan bertan behera uzten badira, justifikatu egin beharko dira. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak ukoaren oinarria aztertuko du, eta hurrengo ikasturtean nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartzeko zigorrari buruzko erabakia hartuko du.

9. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdiaren oinarriak edo epeak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatu badira, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da emandako dirulaguntza, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Nazioarteko Harremanen Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsoneri eta harrera unibertsitateei, mugikortasunak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

Egonalditik behar baino lehen itzuliz gero, nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus helbidera jakinarazi beharko du, arrazoiak alegatuz eta justifikatuz. 5.1 puntuan aipatutako Batzordeak uko egiteen oinarria aztertuko du, itzulketatik salbuesteko kausa larritzat har daitezten.

Hori horrela, honako hauek baino ez dira hartuko salbuesteko kausa larritzat: ikaslearen edo haren bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko senitartekoen istripu edo gaixotasun inhabilitatzailea. Egoera horiek frogatzeko, zuzenbidean oinarritutako frogabideak aurkeztu beharko dira. Alegazioak onartzen ez badira, eta zuzenbidean jar daitezkeen errekurtsioei kalterik egin gabe, ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorri abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Leioa, 2024ko otsailaren 24a.

Sin. Gotzone Barandika Argoitia
TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE
ERREKTOREORDEARENA

Eranskinen zerrenda

1. eranskina Eskainitako BIPen informazioa
2. eranskina Eskaera inprimakia
3. eranskina Onarpen/uko egite inprimakia
4. eranskina Hitzarmen akademikoa
5. eranskina Laguntza kobratzeko izapideak